275. zk.
Bigarren aroa
Apirilak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Txalaparta eguna Meaka auzoan
3. orrialdea

Kirolak
Kako Aranburu tiratzaile-rari elkarrizketa
9. orrialdean

Aldaketa esanguratsuak jasan ditu San Migel-Anaka planak

6 Elkarrizketa Iurre Telleriari elkarrizketa
7 Erreportajea Bigarren Mundu Gerrako erakusketa.
8 Kirolak Emakumeak kirolan.
10 Erreportajea Eginkizun soziala du Hazlanek.
11 Haurren Leihoa Txingudi Ikastola LH1
12 Gazteen Lanak La Salle DBH1
13 Gaztea Ikesta: Zer egingo duzu opilaren egunean?
14 Gazte infor
15 Agenda

confecciones ALONSO
SAN MARKOS EGUNERAKO
ZAPIAK ESTANPATZEN DITUGU
confalonso@gmail.com 638 319 210
Hondarribia Kalea 3, IRUN 20301

10 EURO

Hurrengo erosketan
2 euroko
deskontua

Argazki lehiaketa

Cristina Espinosa
Irungo tren sarea.

Bidaltzen dizkiguzuen argazkien artean, bat aukeratu eta argitaratuko dugu, zenbaki bakoitzean.

Edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen amaieran, argitaratutako argazki guztien artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Cipriano Larrañaga kalea

IUA: 40481

Gerra Zibilean Irun erre zuen sutearen ondoren ateratako argazkia da goikoa. Cipriano Larrañaga kalea Colon ibilbidearen paraleloa da, Zabaltza plazatik Topoaren trenbidera doana.

Cipriano Larrañaga Oñatin jaio zen 1855 edo 1856 urtean, eta 21 urte zituenean Irunera lekualdatu zen. Hiriko Colon ibilbideko 43. zenbakian zuen bizitokia,eta hiria biziki maitatzera heldu zen.

Cipriano Larrañaga Bereziartua, alderdi liberaleko kidea, Irungo alkate izan zen 1898tik 1904 ra, eta 1909tik 1911ra. Haren agintaldian obra handiak egin izan ziren, adibidez, Iparralde hiribidearen proiektua eta Bidasoaren gaineko nazioarteko zubiarena, ospitaleko pabiloiak eraikitzea, udaletxea konpontzea 1903ko Euskal Jaiak zirela eta, uren ekartzea eta estolderia handitzea, Biteri eskolak eraikitzea etab.

Aldi berean, bere aduana agentzia ere kudeatu zuen.

1913 urtean hil zen.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Txalaparta Eguna egingo dute Meakan

Apirilaren 17an izango da, auzo guztian zehar

Landa-giroarekin estu lotutako auzoa izan da, eta bada oraindik, Meaka. Harreman hori kontuan hartu du Meaka-Festak talde berriak, bere lehen jarduera proposatzeko. Txalaparta Eguna antolatu du, apirilaren 17rako. Antzinako instrumentua izango da protagonista, erakustaldiekin eta tailerrekin. Bidelagunak ere izango ditu, egun osoko egitarau erakargarria osatzeko. Martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran izan dituzte auzoko jaiak, baina festa giroan dira berriro.

Auzoko sei bizilagun elkartu dira Meaka-Festak taldea osatzeko. Auzoa dinamizatzeko eta jarduerak antolatzeko asmoz jarri dute martxan. “Meaka Auzo Elkarteak urtero antolatzen dituen ekintzez gainera, gehiago ere egin nahi genituen. Auzo elkartearekin eta beste eragileekin elkarlanean, beti ere”, adierazi du Txemi M. Artolak. Amona Kattalin Txoko jatetxeko jabea da, eta bi urte eta erdi daramatza Meakan. “Maiteminduta nauka, leku zoragarria da”, baieztatu du sukaldariak. Eraikin historikoak eta ingurune natural ederra ditu Meakak. Baina horiez gainera, auzoaren balio handienetakoen artean bertako bizilagunak aipatu ditu Artolak. Juncal Amundarainek, ordea, nabarmendu du azken aldian bizilagunen arteko harremanak hozten hasiak zirela: “Askotan, errepidean gurutzatzen garenean

> “Galtzeko arriskuan dauden ohiturak berreskuratzea da gure helburuetako bat”
> **Txemi M. Artola**

besterik ez dugu elkar agurtzen”.

Harremanak estutzeko eta elkar ezagutzan sakontzeko aukera ematen dute auzoan antolatzen diren aktibitateek. Horregatik erabaki zuten Meaka-Festak taldea abian jartzea. Irungo beste auzoetako jendea erakartzeko ere bai, jakina. “Leku ezezaguna da Meaka irundar askorentzat. Ez dakite zer galtzen ari diren”, aipatu du Artolak. Jarduera erakargarriak antolatu nahi dituzte, auzoak dituen berezitasunak alde batera utzi gabe. “Galtzeko arriskuan dauden ohitura zaharrak berreskuratzea da gure helburuetako bat”, baieztatu du Txemi M. Artolak: “Aizkolariak eta harri-jasotzaileak leku askotan ikusten dira. Baina txalaparta ez hainbeste. Guk dakigula, Hernanin besterik ez da egiten txalaparta kontzentrazio-

> “Oso jende gutxik daki txalaparta nondik datorren, eta nola erabiltzen den”
> **Juncal Amundarain**

rik”.

Txalapartaren inguruko festa egingo dute, beraz, Meakan. “Gure instrumentua da, baina oso jende gutxik daki nondik datorren edo nola erabiltzen den”, gogorarazi du Juncal Amundarainek. Dolores Lasak berretsi ditu lagunaren hitzak: “Txalaparta ez da bi makil hartu eta edonola jotzea. Garai batean, dei bakoitzak bere zentzua edo funtzioa zuen: sagardoa jasotzeko, laguntza eskatzeko, heriotzen berri emateko etab.”. Jai giroaz gainera, alde pedagogikoa izango du, hortaz, Meakako Txalaparta Egunak. “Gabonetan Olentzeroren etorrera egin genuenean, haurrak txalaparta jo nahian ibili ziren. Oraingoan tailerrak egingo ditugu, jendea instrumentura hurbildu ahal izan dadin”, azaldu du Amundarainek.

Apirilaren 17an egingo dute festa, igandearekin. Irungo Txalapartariak taldea izango da gonbidatu nagusia, txalaparta saioak eta haurrentzako tailerrak eskainiko dituena. “Hurrengo urteetan Euskal Herriko beste lekuetako txalapartariak ere gonbidatu nahi genituzke”, argitu du Artolak. Ondare Kultur Elkarteak erraldoiekin eta buru handiekin parte hartuko du, eta Meaka Euskal Dantza Taldeak haurrentzako eta helduentzako dantza saioak zuzenduko ditu. Artisauen azoka ere egongo da, auzoko tabernetan. “Ideia da jendea auzo osoan zehar banatzea. Olatik Borda Txikira”, argitu du Amundarainek. Eguerdian bazkari herrikoia egingo dute auzo elkartearen egoitzan. Borda Txiki, Amona Kattalin Txoko, La Juanita eta Ola jatetxeek banatuko dute jatekoa eta edatekoa prestatzeko lana. Bazkalostean, omenaldi txiki bat egingo diote bizilagun bati. Aurten Peio Urtxegik jasoko du aitortza, auzoaren eta dantzaren alde egindako lanagatik.

Aldaketa esanguratsuak jasan ditu San Migel-Anaka planak

Lakaxita eraisteko asmorik ez du Irungo Udalak
Sancheski enpresaren lekualdatzea atzeratu dute, eperik gabe

Beste urrats bat eman du San Migel-Anaka eremuaren urbanizazioak. Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren bigarren aldaketaren berri eman du Irungo Udalak, eta alegazioak jasotzeko epean dago orain. Maiatzean edo uztailean plenora eramatea aurreikusten du udal gobernuak, behin-betiko onartzeko. Egindako aldaketek bi helburu nagusi dituzte: kargak murriztea, eta proiektua aurrera eramateko etapak zehaztea. "Modu horretan, horrenbeste atzeratu den plana behingoz martxan jartzea lortuko dugu", argitu du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak. Besteak beste, Lakaxita ez eraistea eta Sancheski enpresaren lekualdatzea atzeratzea aurreikusten du udal gobernuak.

Milatik gora etxebizitza eraikiko dituzte, hurrengo urteetan, San Migel eta Anaka auzoen arteko eremuan. 100.000m²-ko espazioa hartuko dute, guztira, etxebizitzetako eraikinek, Letxunborro, Jaizkibel, Donostia eta Anaka kaleen artean. Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren bigarren aldaketaren arabera, etxebizitza libreak 288 izango dira. Babes ofizialekoak, aldiz, 887 (%75). Zortzi urteko epean, 400 etxebizitza inguru alokairu sozialera bideratu nahi lituzke udal gobernuak. "Gogoratu behar da alokairu sozialeko etxebizitzaren eraikuntza konplikatua dela, finantzatzerako orduan topatzen diren zailtasunak direla eta", azpimarratu du Iridoyk.

Etxebizitzez gainera, futbol zelaia, bestelako kirol instalazioak eta merkataritza gunea eraikiko ditu udalak eremuan. Proiektuaren bolumena ikusita, argi dago luze joko duela. Iridoyk berak aitortu du: "Plan handia da, konplexua, akordio asko behar dituena". Horregatik, hiru etapa edo fase nagusitan aurrera eramateko planteamendua egin dute. Dena den, 2017ra arte, behintzat, ez dira lurra mugitzen hasiko. Aurtengo helburuen berri eman du Xabier Iridoyk: "Alde batetik Eusko Jaurlaritzarekin lan egiten jarraituko dugu, lursailen %25en jabea baita. Aldi berean, lurraren deskontaminaziorako ikerketari ekingo diogu. Ondoren, PAU edo urbanizaziorako ekintza plana eta partzelazio proiektua martxan jarriko ditugu".

> "Plan handia eta konplexua da, akordio asko behar dituena"
> **Xabier Iridoy, Irungo Udaleko Hirigintza ordezkaria**

Eremuan dauden eraikinen etorkizuna

Planaren azken aldaketak, eremuan dauden zenbait eraikin finkatu ditu. Beraz, ez dituzte eraitsi behar izango. 1.343.000 euro bideratu ditu Irungo udalak azken urteotan, eraikinak eraberritzeko. Proiektuak izan duen atzerapenak bizilagunei eragin dizkien eragozpenak onartu diru José Antonio Santano alkateak: "Ziurgabetasunean bizi izan dira hamarkadetan zehar. Lasai egon ahal izango dira orain". Lekaenea ikastetxea ere finkatu du Irungo Udalak. Sancheski enpresa behin-behinean finkatu du, eta haren lekualdatzea atzeratu, jabeek erabakia hartzen duten arte.

Beste eraikin batzuk, aldiz, ordenaziotik kanpo gelditu dira: Santa Barbara, Izartxo-Enea, Agerre Txiki, Etxeberri eta La Casita, gaur egun Lakaxita Gaztetxea hartzen duena. Azkena izan ezik, gainerakoak eraitsi egingo dituzte, errepideak edo oinezkoentzako bideak eraikitzeko. Lakaxitaren lursaila, eraikina barne, 1.300.000 euroren truke erosi du Irungo Udalak. Dena den, ez du eraikina eraisteko asmorik. "Lakaxitako jarduerek aurrera egin ahal izango dute", konfirmatu du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Lasaitua hartu dute Lakaxitako kideek

Lakaxitako asanbladako kideek eta erabiltzaileek ere kezkaz bizi izan dituzte San Migel-Anaka planari buruzko berriak. “Izaera autogestionatuko gune bat beti bizi da mehatxupean”, onartu du Beñat Muguruzak. Gainera, proiektuari buruzko informazio guztia komunikabideen bidez jaso dutela salatu du. Horrela jakin zuten udalak eraikina erosi zuela, eta Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren bigarren aldaketaren arabera ordenaziotik kanpo geratzen zela. Egoera horrek ekar zitzakeen ondorioen beldur, otsaileko udalbatzan Lakaxitaren etorkizunari buruzko galdera egiteko baimena eskatu zuten. “Udalbatzan hitz polit asko entzun genituen”, adierazi du Muguruzak. “Hamaika urteko ibilbidean lehen aldiz”, zehaztu du.

Xabier Iridoy Hirigintza ordezkariarekin eta Mikel Orgallo arkitektura buruarekin bildu ziren ondoren, martxoaren 17an, egoeraren inguruko xehetasunak biltzeko asmoz. “Luze hitz egin genuen, eta nik uste zalantza guztiak argitu genituela”, baieztatu du Iridoyk. Lakaxitako asanbladako kideek ere balorazio positiboa egin dute. Plazaratu duten oharrean udaleko ordezkariei eskerrak eman dizkiete jasotako harreragatik, eta Lakaxitak hiriari egiten dion ekarpena aitortzeagatik. “Udalak gure lana onartu eta txalotu du, eta horrek lasaitasuna ematen digu”, aipatu du Iune Trecetek. Udalak eraikina eraisteko asmorik ez duela, eta Lakaxitak orain arte funtzionatu duen moduan aurrera egin dezan begi onez ikusten duela ere jakinarazi du Xabier Iridoyk: “Modu autogestionatuan funtzionatu dute orain arte, eta esperientzia baikorra izan dela uste dut. Zergatik aldatu orain arte ondo funtzionatu duen jarduera?”.

> “Udalak gure lana onartu eta txalotu du, eta horrek lasaitasuna ematen digu”
> **Iune Trecet, Lakaxitako asanbladako kidea**

Aitzitik, eraikinaren jabetza Irunvi Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoarena da. Hortaz, udalak du han gertatzen denaren gaineko ardura. Horregatik, eraikinak segurtasun neurri jakin batzuk bete beharko dituela aurreratu du Hirigintza ordezkariak. “Teknikari bat pasa beharko da ikuskatzera. Pentsatzen dugu etxea nahiko ondo dagoela, urte guzti hauetan mantentze lanak egin dituztelako”, azaldu du Iridoyk. Martxoaren 17ko bilerara, eraikina finkatzeko proposamena eraman zuten Lakaxitako asanbladako kideek. Baina Iridoyk argitu du aukera horrek beste egoera batera eramango lukeela: “Bide normatibotik eramango luke. Lakaxita eraikina ekipamendu publiko bihurtuko litzakete, eta arautegi estu bat bete beharko luke”. Beñat Muguruzak aurreratu du ez duela uste baldintza horiek betetzeko prest daudenik. Asanbladan eztabaidatuko dituzte aukerak, dena den.

Ospakizuna, Jaionen

Jasotako azken albiste onak ospatzeko aukera izango dute Lakaxitan era batera edo bestera parte hartzen duten guztiek. Apirilaren 23an gaztetxearen hamaikagarren urteurrena ospatuko dute, urteroko Jaion festarekin. Kontzertu ibiltaria irtengo da 17:30etan Moskutik, Urdanibia plazatik. Ondoren, festa luzea izango da Lakaxitan. *Lakaxita beriola* leloa hautatu dute aurten, Lakaxitak bere horretan jarrai dezan nahi dutela aldarrikatzeko. Bide luzea egin du modu autonomo eta autogestionatuan funtzionatzen, eta moldatzen eta eraldatzen ere jakin du. “Gaur egun ez dakigu nola deitu. Gaztetxe hitzak lotsa pixka bat ematen digu jada”, onartu du Beñat Muguruzak. Izan ere, gaztetxe klasikoetan ohikoak diren hitzaldiak, eztabaidak, kontzertuak, antzerkiak eta bestelako jarduerak hartzeaz gainera, elkarteen, kooperatiben eta beste zenbait kolektiboren egoitza ere bada. Hiritik At arkitektura sozialeko elkartea, Aldatsa eta Bare Alaia baratze kooperatibak, edo Stop Kaleratzeak plataforma dira horren adibide.

IURRE TELLERIA, "Azken bidaia dokumentalaren zuzendaria:

"Lan handia, luzea eta zaila izan zen"

Comète, ihesbide sarea erakusketaren osagarri, *Azken bidaia* dokumentalaren emanaldiak egiten ari dira Oiasso Museoan. Maiatzaren 4an (gaztelaniaz) eta 11n (euskaraz) izango dira azkenak. 18:30etan egingo dituzte bi proiekzioak, CBA kultur gunean. 2011ko filma da, Enara Goikoetxea eta Iurre Telleria hernaniarrek zuzendua. Comète sarean parte hartu zutenekin edo haien senideekin izandako elkarrizketak, eta garaiko pasarteen erreprodukzio historikoak uztartzen ditu. Iurre Telleria zuzendariak eman ditu bestelako xehetasunak.

Iurre Telleria eta Enara Goikoetxea.

Nola izan zenuten Comète sarearen berri?
Batzar batean dokumentalak egiteko ideiak proposatzen ari ginen. Bertan zegoen lagun batek Florentino Goikoetxea hernaniarraren izena bota zuen. Bi hernaniar geunden bilera horretan, eta ezer ere ez genekien Goikoetxeari buruz. Ikertzen hasi ginen, eta jakin genuen Bigarren Mundu Gerran iheserako sare garrantzitsu batean mugalari izan zela, eta bere lanak oihartzuna izan zuela. Dominak jaso zituela etab. Hortik tiraka hasi ginen.

Zergatik pentsatu zenuten dokumental baterako gai aproposa izan zitekeela?
Elementu interesgarri asko zituelako. Alde batetik, ikerketa historikoa. Oraindik bizirik zeuden protagonista batzuk ezagutu genituen, eta haiek kontatzen zituzten istorioek emozioa zutela ikusi genuen. Bestalde, iruditzen zitzaigun Frantzian, Belgikan eta Erresuma Batuan gaia ezaguna zela, baina Euskal Herrian isilpean egon izan zela. Oso informazio gutxi zegoela hemen, gaiaren inguruan.

Anbizio handiko proiektua izan zen. Frantziako, Belgikako eta Erresuma Batuko ekarpenak lortu zenituzten.
Nazioarteko lan bat izan behar zuela, hasieratik pentsatu genuen. Ez zuela zentzurik gure txokoko istorioa bakarrik kontatzeak. Inportantea iruditzen zitzaigun testuinguruan jartzea. Horretarako, kanpora ateratzea beharrezkoa zela iruditzen zitzaigun. Proiektu xumeago bat genuen buruan, beharbada. Baina ikusita zeinen konplikatua zen gaia, eta hori modu erakargarri eta ulerterraz batean kontatzeko zer nolako baliabideak behar ziren, proiektua handituz joan zen, eta errekurtso gehiago bilatu behar izan genituen. Lan handia, luzea eta zaila izan zen azkenean.

Nola egin zenuten dokumentazio lana?
Juan Carlos Jiménez de Aberasturiren liburua izan zen oinarria. Urteak dira liburu dendetan aurkitzerik ez dagoela. Liburutegitik hartu eta fotokopiatu beste aukerarik ez genuen izan. Bere laguntzarekin hasi ginen zerbait kontatu zezakeen jendearekin hitz egiten. Bestalde, Frantziako, Belgikako eta Erresuma Batuko elkarteekin harremanetan jarri ginen. Haien bidez ezagutu genituen beste pertsona batzuk. Ikerketa historikoan ez ginen bakarrik egon, lagundu gaituen sare bat izan genuen beti inguruan. Informazio mordoa lortu genuen, elkarrizketa pila bat egin genituen, eta gero dena ordu eta erdiko dokumental batean laburtzea sekulako lana izan zen.

Nolako elkarrizketak izan ziren? Aspaldiko kontuak ziren, delikatuak kasu batzuetan.
Protagonistetako batzuk urteak eman dituzte haien historiak kontatzen. Gehienek esaten dute gerraren ondoren ez zutela gaiari buruz hitz egin nahi izaten. Baina gero, urteak aurrera joan ahala, haien esperientzia kontatu behar zutela konturatu zirela. Batez ere, beste inori halakorik ez gertatzeko. Batzuek, asmo horrek bultzatuta, behin eta berriro kontatzen dituzte haien bizipenak. Beste batzuk, lehen aldiz aritu ziren gaiari buruz hitz egiten, eta elkarrizketa horiek oso hunkigarriak eta gordinak izan ziren.

Elkarrizketak garaiko pasarteen erreprodukzioekin uztartu zenituzten. Dokumentala aberasten zutela pentsatu zenuten?
Iruditzen zitzaigun gaur egungo ikuspegitik oso zaila zela garai hartako bizitza imajinatzea. Beraz, irudiek lagunduko zigutela gerturatzen. Dokumentalean agertzen diren pertsonak adinekoak dira, 70 edo 80 urtetik gorakoak, horietako asko. Gu kontatzen ari garen istorioa, haiek oso gazteak zirenekoa da. Aiton-amona haiei aurpegi gazteak jartzeko, argazki gutxi batzuk genituen, baina artxiboko irudirik ez. Horregatik, erreprodukzio historikoa zen aukerarik onena.

Dokumentala da Azken Bidaia, baina batzuetan abenturazko filma dirudi. Bestelako osagaiak ere baditu.
Kontatzen duen istorioa bera abenturazkoa da, parte batean. Alde gogorra eta tristea ere badu, protagonistetako batzuk sufritu zituzten ondorioena, adibidez.

Euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa... Oso anitza da hizkuntzei dagokienez.
40ko hamarkadan, jende gehienak hizkuntza bakarra zekien. Edo bi hizkuntza, gehienez. Eta deigarria da nola ulertzen zuten elkar, Comète sarearen moduko zerbait antolatzeko. Interesgarria iruditzen zitzaigun hizkuntza guzti horiek entzutea. Dena bikoiztu beharrean, ikusleak aniztasun hori entzun zezan nahi genuen.

Dokumentala ikusi zuten parte hartu zutenek?
Egia esan, oso urduri egon ginen ikusi zuten arte. Kontatu ziguten guztiaren artean, guk aukeratu genuen zer erabili, eta zer ez. Gehienei asko gustatu zitzaien, eta oso pozik hartu zuten. Lan baliagarria iruditu zitzaien. Harro daudela uste dut.

Zuek pozik gelditu zineten azken emaitzarekin?
Denborarekin ikusita, beti aldatu nahi izaten duzu zer edo zer. Baina orokorrean, kontent gaude emaitzarekin. Uste dugu lortu genuela historia kontatzea, eta aldi berean pelikula entretenigarria egitea. Pena handiena da filmak zabalkunde handiagoa eduki ez izana. Pelikula amaitu ondoren, ez genuen izan hori egiteko gaitasunik. Orain arantzatxoa kendu dugu nolabait, *Comète, ihesbide sarea* erakusketarako materiala emanez. Zabaltzeko beste modu bat izan da.

Uste duzu dokumentala gertakari historikoak kontatzeko modu egokia dela?
Nik uste jendeari dokumentalak ikusten jartzea kostatzen zaiola. Hasten direnean, ordea, gustura ikusten dituzte gehienek. Zailtasunik handiena jendea erakartzea da. Ez dugu halako dokumentalak ikusteko tradiziorik, edo ohiturarik.

Bigarren Mundu Gerra Bidasoan

Nazioarteko gatazkak eskualdean izan zuen eraginaren berri ematen dute CBAn eta Oiasso Museoan dauden erakusketek

1940ko ekainean iritsi ziren Wehrmacht-eko tropa alemaniarrak Bidasoko mugara. Duela 76 urte izan zen, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan. Harrera beroa egin zieten frankistek Abenida zubian, nazioarteko gatazkan Espainia estatu neutrala zen arren. Gerra Zibila irabazi ondoren, Francok Hitlerren Alemania lagun eduki nahi izan zuen, armada gaindiezina zuela baitzirudien orduan. Hori dela eta, lasai ederrean ibili ziren tropa frankistak Bidasoaren bi aldeetan. CBA kultur gunean dagoen *Nazien presentzia Bidasoan* argazki erakusketan ikus daiteke. Oiasso Museoko *Comète* erakusketak, berriz, garai bereko ihesbide sarearen berri ematen du.

Armistizioa sinatu eta naziek Frantzia okupatu ondoren, atsedenerako eta indarrak berreskuratzeko gune pribilegiatu bilakatu zen euskal kostaldea, tropa alemaniarrentzat. Gudu zelaietatik urrun zegoen, erresistentzia gogorrik ez zegoen, eremu lasaia zen, eta hondartzak, bainuetxeak, hotelak eta bestelako interes gune eta azpiegitura erakargarriak zituen. Hamarkadak zeramatzan Iparraldeak turistak hartzen. Beraz, naziak ere, turisten moduan ibili ziren Biarritzeko hondartzan, Baionako kafetegietan edo Larrun mendiko funikularrean, besteak beste. Herritarren etxeak konfiskatu zituzten hasieran, baina txaletetan, hoteletan eta gazteluetan instalatu ziren, beranduago.

Iparraldean bakarrik ez, Bidasoaren hegoaldean ere eroso ibili ziren tropa alemaniarrak, frankistak lagun zituztela. Juan Carlos Jiménez de Aberasturi historialaria aditua da Bigarren Mundu Gerraren gaian, eta azaldu du 1940ko ekainaren 27an pasa zela lehen delegazio alemaniarra Irunera, Abenida zubitik: "SSetako destakamendu bat pasa zen, eta beste aldeko lagunek agurtu zituzten". José Ramón Vega adineko irundarrak azaldu izan du irundarrek harriduraz hartu zituztela soldadu alemaniarrak: "Altuak, ilehoriak eta indartsuak ziren". Hiriko dendetako, tabernetako eta bestelako establezimenduetako bezero bilakatu ziren: "Erosketa onak egiten zituzten, eta adeitsuak ziren". CBAko erakusketan dagoen argazkietako batean, ofizial naziak San Martzial mendian ikus daitezke, ekainaren 30ean, Eusebio Pedrós alardeko jeneralarekin, eta urte hartako kantinerekin.

Bisita entzutetsuak

Soldadu arruntak eta ofizialak bakarrik ez, goi karguak ere izan ziren Bidasoaren hegoaldean. 1940ko urriaren 19an, Heinrich Himmler SSen buruak nazioarteko zubia gurutzatu zuen. Irungo tren geltokian harrera egin zioten, bandera naziekin eta Espainiako ereserkiarekin. Donostian, Diputazioaren eraikinean egin zioten ongi etorri ofiziala, txistulariek jotako Agur Jaunak abesti eta guzti. San Telmo Museoa eta Igeldo bisitatu ondoren, Madrilerako bidea hartu zuen Himmlerrek, Francisco Francorekin elkartzeko. Bileraren helburua, Francoren eta Hitlerren arteko elkarrizketa prestatzea izan zen. Urriaren 23an bildu ziren bi diktadoreak, Hendaiako tren geltokian. Elkarrizketak, Espainiak Bigarren Mundu Gerran parte hartzeko baldintzak zehaztea zuen helburu. Ez zuen ondorio zuzenik izan, ordea.

Tropa alemaniarrak eragozpenik gabe ibili ziren Bidasoaren hegoaldean, Bigarren Mundu Gerrak kontrako norabidea hartu zuen arte. "Batez ere, naziek 1943aren hasieran Stalingrad galdu eta gero aldatu zen egoera", zehaztu du Aberasturik. Jarrera aldatu zuen orduan Francok, aliatuen garaipenerako prestatzen hasteko. Alemaniarrek 1944an ihes egin zuten Iparraldeko kostaldetik, Normandiako lehorreratzearen ondoren.

Ezkutuko erresistentzia

Alemaniarren okupazio lasaiaren itzalean, erresistentzia sare klandestinoak lanean aritu ziren. Okupatutako Europa osoan, eta Behe Bidasoa eskualdean ere bai. Ezkutuko jarduera horren adibide da Comète sarea. Belgikan sortu zen, 1941 urtean, naziek okupatutako lurraldeetan eroritako pilotuei ihes egiten laguntzeko. Frantzia Iparraldean eta Belgikan, esaterako, ehunka britainiar gelditu ziren egoera zail horretan. Pilotu horientzat, pentsaezina zen ondo defendatutako Mantxako Kanala gurutzatzea eta Erresuma Batura iristea. Beste aukera, Frantzia osoa zeharkatzea zen, Francoren Espainiara iristeko, eta Erresuma Batuko kontsulatuarekin harremanetan jartzeko. Ibilbide horretan, Bidasoa zeharkatzea puntu kritikoa zen.

Juan Carlos Jiménez de Aberasturik azpimarratu du bonbardaketak astero egiten zituztela, eta ikaragarri handiak izaten zirela. Pilotuen kopurua ere tamainakoa zen, beraz, garrantzia handia zuen bizirauten zutenek bueltako bidea egin ahal izatea: "Pertsonal militarra eta kualifikatua zen. Psikologikoki ere garrantzitsua zen haiek etxera bueltatu ahal izatea". Horregatik egin zuten agintariek iheserako sareen aldeko apustu argia. Andrée de Jongh Dedée emakume gaztea izan zen Comèten antolatzailea. 1941eko uztailaren amaieran, Bilboraino bidea egin zuen Dedéek, zenbait piloturekin. Erresuma Batuko kontsulatuarekin harremanetan jarri zen, proiektuaren bideragarritasunaz konbentzitzeko asmoz. Bilera horren ondoren, 1941eko udaran martxan jarri zuten Comète sarea, Erresuma Batuko gobernuaren babesarekin. Hiru urteko epean, ia 800 pilotuk lortu zuten ihes egitea, Comèten lanari esker.

Angelun errefuxiatuta zegoen familia belgikar batekin harremanetan jarri ziren. De Greef zen familiaren izena. De Greeftarrek kolaboratzaileen multzoa osatu zuten Bidasoko mugaren inguruan. Kolaboratzaile batzuk iheslariak hartzeko eta ezkutatzeko prest zeuden. Beste batzuek, muga zeharkatzerako momentuan iheslarien gidari izateko aurkeztu zuten euren burua. Muga zeharkatzen urtetako esperientzia zuten kolaboratzaileak hautatu zituzten: kontrabandistak. Maritxu Anatol irundarra aritu zen laguntzaileen artean. "Emakumezkoak izan ziren kolaboratzaileetako asko", azpimarratu du Cristina Aguirre Oiasso Museoko gerenteak. Comète sareari buruzko erakusketa ikus daiteke bertan.

Orekaren bila, kirolean

Emakumezkoen kirolari buruzko mahai-ingurua egin dute Amaian

Olatz Zabala, Nerea Sarriegi, Nekane Soria eta Gaurko Andreak elkarteko Irene Kastezubi.

Sexuen arteko desoreka agerikoa da kirolaren munduan. Kirol prentsa, edo bestelako hedabideek eskaintzen duten kirol informazioa gainbegiratzea besterik ez dago. Emakumezkoen kirolak jasotzen duen arreta eta trataera ezin daitezke gizonezkoenarekin konparatu. Komunikazioarena, ordea, kirol munduko berdintasun ezaren adarretako bat baino ez da. Gainerako aspektuak ere aztertu dituzte Gaurko Adreak emakumeen elkarteak Amaia Kultur Zentroan antolatutako mahai-inguruan.

Hamabi kontseilari daude Real Sociedad S.A.D.ko administrazio kontseiluan. Horietatik, bakarra da emakumezkoa. Nekane Soriak gizonezkoen artean egiten du lan. Hala ere, kluba berdintasun arloan erreferente dela baieztatu du: “Duela zazpi urte administrazio kontseiluan sartu ginenean, Reala desagertzeko arriskuan zegoen. Berehalako arrisku larri hori konpondu ondoren, beste arazo batzuei heldu genien. Horien artean, berdintasunaren gaia jorratu genuen”. Berdintasun Planaren hirugarren fasean dago jada Reala. Bidean, lorpen handiak erdietsi dituela azpimarratu du Soriak. Kontratuen gaia jarri du adibide: “Realeko emakumezkoen futbol taldeko jokalari guztiek kontratu profesionala dute”. Gizonezkoen 2.B Mailan, eta Bigarren Mailan ere, amateur kontratuak dituzte jokalari askok.

Emakumezkoetan, Lehen Mailan ere salbuespenak dira kontratu profesionalak dituzten neskak. “Espainiako Futbol Federazioan, emakumezkoen hogeita sei fitxa profesional daude. Hogeita bat Realekoak dira”, argitu du Nekane Soriak. Beste talde gehienetan, neskek soldata gutun azal baten barruan jasotzen dutela gaineratu du. Jasotzen baldin badute, jakina. Realeko neskek hegazkinean egiten dituzte bidaiarik luzeenak, eta gizonezkoen taldeak erabiltzen dituen autobus berdinetan, laburrenak. Nesken aurkariak, ordea, Extremaduratik eta Andaluziatik ere autobusean joaten dira Zubietaraino. Hotelik hartu gabe, autobusean egin behar izaten dute lo. Entrenamenduetarako, ordutegirik okerrenak uzten dizkiete neskei klub askotan. Realean, gizonezkoek eta emakumezkoek baldintza berdinak dituztela nabarmendu du Soriak: “Xabi Prietoren eta Nahikari Garciaren medikua berdina da”.

Realaren eredua gainerako klubetara hedatzeak mesede egingo lioke emakumezkoen futbolari. Horretarako, Espainiako Futbol Federazioaren babesa beharrezkoa dela uste du Nekane Soriak, emakumezkoen futbolak ere etekinak sor ditzan. “Telebista emankizunak, ligarako babesleak eta abar lortu behar dira”, adierazi du Realeko kontseilariak. Emakumezkoen futbolari esker klubek dirusarrerak lortzea, nesken onerako izango litzatekeela pentsatzen du. Ez soldatei dagokienez bakarrik, futbol zelaien, instalazioen, garraioen eta bestelako baldintzen hobekuntzari begira ere bai. Soldatak pixkanaka parekatzen hastea ere urrats handia litzateke, amildegia baitago oraindik gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Amateurrak diren kiroletako egoera

Emakumezkoen kontratu profesionalez eta soldatez hitz egin daiteke futbolean, eta beste kirol gutxi batzuetan. Kluben eta herrialdeen arteko ezberdintasun handiekin, beti ere. Gainerako kirol gehienetan, ordea, zeharo ezberdina da egoera. Nekane Soriak ondoan izan dituen Nerea Sarriegi Super Amara BATeko atletak eta Olatz Zabala Santiagotarrak K.E.ko presidente eta piraguistak gogorarazi dute haien kiroletan amateurrak direla denak. Bai neskak, baita mutilak ere. “Goi mailan aritzen den jendeak bekak lortzen ditu, edo kirol marka handien babesak, bestela. Baina kontraturik ez dute izaten”, azaldu du Sarriegik. Piraguismoan ere, egoera antzekoa dela baieztatu du Zabalak: “Kontraturik ez dugu, eta diru-laguntzak gero eta gutxiago dira. Garai batean babes handiagoa zegoen, baina orain diru dezente jarri behar izaten dugu lehiaketetara joateko”.

Diru-sarrerei dagokienez, beraz, alderik ez dago atletismoan eta piraguismoan. Minimoak dira, gizonezkoen eta emakumezkoen kasuan. Horregatik, neurri handi batean, ez dago desorekarik sexuen artean, gainerako parametroei begiratuta ere. Instalazioen erabileran, baldintza berdinak dituzte emakumezkoek eta gizonezkoek. Txarrak Super Amara BATen kasuan, Plaiaundiko pisten egoeraren ondorioz, eta askoz hobeak Santiagotarrak K.E.ari dagokionez. Komunikabideek eskaintzen dieten arretari buruz hitz egiterakoan ere, argudio berdina erabili dute neskek. “Atletismoa oso gutxitan agertzen da, bai emakumezkoena, baita gizonezkoena ere. Hedabideetan agertu ohi diren kirolak aztertu behar genituzke: futbola, saskibaloia eta tenisa, adibidez”, aipatu du Nerea Sarriegik. Soriak gogorarazi du komunikazio enpresek saltzea dutela helburu, eta horregatik daudela halako desorekak. Dirua, berriro, berdintasun ezaren atzean.

Azken gai bat ere jorratu dute Amaiako mahai-inguruan. Txikitan kirola egiten duten nesken kopurua gero eta gehiago emendatzen ari bada ere, nerabezarotik aurrera klubetan jarraitzen duten neskak gutxi dira oraindik. Azalpen esanguratsua eman du Sarriegik: “Ni jubenil mailan joan nintzen lehen aldiz Espainiako Txapelketa batera. Garai hartan neska pila bat ginen. Hiru finalerdi izaten ziren, eta finalera pasatzea oso zaila izaten zen. Junior mailan, aldiz, finala egin behar izan genuen zuzenean”. Piraguismoan ere bilakaera antzekoa izaten dela berretsi du Zabalak: “Bost urte daramatzat mutilekin entrenatzen. Batzuetan gogorra izaten da, mutilentzat arrotza zarela sentitzen baituzu”. Kirolariaren bizitzaren gogortasuna eta entrenamenduak eta ikasketak uztartzearen zailtasuna nabarmendu ditu piraguistak. Nekane Soriak arrazoia eman dio, baina beste hausnarketa bat jarri du mahai gainean: “Gizonezko batek badaki goi mailara iristen bada, kirolaz bizi ahal izango duela. Horregatik, ikasketak alde batera uzteko apustua egin dezake. Emakume batek ikasketei eta lanari emango die beti lehentasuna”.

“Garrantzitsua da egindako lanean konfiantza edukitzea”

Irribarrez zabaldu du Juanjo *Kako* Aramburuk Bidasoko Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkarteko atea. Eltzean dagoen basurdearen aroma du egoitza guztiak. Gauerako afaria prestatzen ari da Kako, lagunak lanean dauden bitartean. “Horrelaxe entrenatzen du tiratzaile profesional batek”, bota du, txantxetan. Mundu osoan zehar lehiatzen ibiltzen da Aramburu, baina zukua ateratzen die Irunen pasatzen dituen egunei. Elkarrizketaren bezperan, omenaldi txikia jaso du Irungo Udalean, Zipreko Munduko Kopan lortu duen brontzezko domina dela eta. Aramburu familiaren ordezkaritza handi bat izan da bertan.

Basurdeak behar duen ura erantsi, sua apaldu, eta mahaian eseri da, kafearekin. “Kirol hitzaldi bat eman behar dut, geroxeago deituko dizut”, azaldu dio telefonoz deitu dion lagunari. Umore-sena du Kakok, baina serio hitz egin behar duenean, ahoan bilorik gabe aritzen da. Joko Olinpikoetan parte hartzeko txartelik ez duen arren, Riorako sailkatu ez izanak ez dio loa kendu. Hogeita hamalau urte ditu, hamabi daramatza goi mailan lehiatzen, eta palmaresaren tamainak ez du kezkatzen. Bideragarri zaion bitartean, tiratzaile profesionalaren bizimoduaz gozatzen jarraituko du.

Denbora asko zeneraman mundu mailako podiumetatik kanpo. Berdin entrenatu eta lehiatu al duzu?

Bai, baina maila honetan ez dago aurkari txarrik. Denek entrenatzen dute, eta oso zaila da finaletan sartzea, hasteko. Ehun tiratzaile gabiltza antzeko mailan, hortaz, sartzeko probabilitatea txikia da. Joan den urtean hurbil izan nituen bizpahiru podium, baina azkenean ez nuen lortu. Hala ere, ez nintzen gehiegi kezkatu. Hori baita arruntena.

Aurten, zure mailako kirolari askok Joko Olinpikoak izango dituzte buruan. Zuk jada ez duzu aukerarik. Beste helburuak jarri dituzu?

Uztailan Italian jokatuko dugun Europako Txapelketa da helburu nagusia. Zergatik? Federazioek eta gainerako erakundeek asko baloratzen dutelako, Munduko Kopak baino gehiago.

Gustatuko litzaizuke hurrengo Joko Olinpikoetan domina lortzeko lehiatzea?

Tokiorako sailkatzen saiatuko naizela, ziur. Dena den, dominak ez nau itsutzen. Joko Olinpikoetara joan aurreko lau urteetan egindako lanaz, eta bide horretan lagundu dizuten pertsonez gozatzea garrantzitsuagoa iruditzen zait.

Horren helburu zehatzak izanik, zaila al da sasoi onenean iristea hitzordura?

Oso zaila da. %100 asmatzen duena, munduko onena da. Eragina duten faktore asko daude: entrenamenduak, aurreko lehiaketak, ohiturak, konfiantza etab. Egokiena da denboraldiko bilakaera aztoratuko duen ezustekorik edo eragozpenik ez gertatzea. Baina dena aurreikusitako moduan betetzen baldin bada ere, lehiaketaren egunean beste ezaugarri baldintzatzaile asko daude: tiro zelaia, eguraldia, egokitzen zaizun aurkari multzoa etab.

Zein entrenamendu mota egiten du tiratzaile olinpiko batek?

Abenduan edo urtarrilean hasten gara normalean. 10-15 egunez entrenamendu fisikoa eta teknikoa egiten dugu. Teknikari dagokionez, atsedena hartzen dugu gero, eta fisikoa lantzen jarraitzen dugu. Denboraldiaurrean, gorputz-enborra eta besoak lantzen ditugu bereziki, fondoaz gainera. Gero, lehiaketen garaian, sentsazioen arabera entrenatzen dugu. Asmatzea ez da erraza, esperientziari esker lortzen da.

Lehiaketan, zeintzuk dira kontuan hartu beharreko faktore nagusiak?

Ezinbestekoa da aldez aurretik entrenatzea. Bestela, alferrik da ahalegin berezia egitea. Garrantzitsua da, baita ere, egindako lanean konfiantza edukitzea. Dena den, esan bezala, aurreikusi ez dituzun beste parametro asko egon daitezke. Bestalde, zein gaitasun edo trebezia eduki behar duen tiratzaile batek? Konstantzia eta konfiantza. Psikologiari dagokionez, ez nuke jakingo esaten. Beste tiratzaile askorekin hitz egin izan dut, eta bakoitzaren ikuspegiak zeharo ezberdinak dira. Nik, adibidez, nire burua animatzen dut momentu batzuetan, baina beste batzuek nahiago izaten dute ezertan ere ez pentsatu, eta kontzentratu, besterik gabe.

Nola erabaki zenuen tirotzaile profesional izateko apustua egitea?

Lehiatzen hasi nintzenean, hamasei urte nituen. Orduan ez nuen erabakiak hartzeko aukera handirik. Ikasketak amaitu nituenean, 2004an, gurasoei galdetu nien ea utziko zidaten lau urte entrenatzera dedikatzea. Baimena eman zidaten, eta apustu hori egin nuen. Entrenatzaile batekin hasi nintzen, planifikazio estuarekin. 2008an Beijingo Joko Olinpikoetara joateko aukera izan nuen, eta zortzigarren gelditu nintzen. Apustua ondo atera zen, eta aurrera egin dut, gaurdaino.

Bekak eta laguntzak dituzu diru-iturri?

Tiroketaren moduko kiroletan, zailtasun handienetako bat da emaitzen arabera jasotzen ditugula laguntzak. Emaitza onak ditugunean, erraz lortzen ditugu. Emaitzak kaskarragoak direnean, ordea, azkar ematen digute bizkarra. Momentu honetan, federazioaren babesa besterik ez dut. BAT Basque Team-en eta Kirolgiren erantzunaren zain ari naiz.

Beste zailtasun bat ere gehitu behar zaio. Aurreko urteko emaitzen arabera jasotzen ditugula laguntzak. Nik, entrenatzeagatik eta lehiatzeagatik, ez dut soldatarik jasotzen. Emaitzak lortzen ditudanean, ordainsaria jasoko dut, baina hurrengo urtean. Dirua aurreztu behar izaten dut, urte txarren ondoren entrenatzen jarraitu ahal izateko. Nabarmentzekoa da beste herrialde batzuetan baldintza askoz hobeak dituztela.

Baldintza horietan, noiz arte eutsiko diozu bizimodu profesionalari?

Sinplea da. Fakturak ordaindu ditzakedan bitartean jarraituko dut. Bizitzeko adina ematen ez didanean, utzi egingo dut. Bitartean, ni gustura ari naiz. Osasun arazoren bat edukiz gero ere utziko nuke, baina momentuz platerak ikus ditzaket.

Omenaldi txikia egin zizuten udalean, Zipretik bueltan. Pozik herrian jasotako aitorpenarekin?

Ondo dago, noski. Udalbatzako kide batzuekin harreman ona dut. Udaletik kanpo, kalean gelditzen naute, nire ibilbideagatik galdetu eta zoriondu egiten naute. Beste batzuek ez, ordea. Nolanahi ere, udalak beste modu eraginkorragoetan lagundu dezakeela iruditzen zait. Arlo ekonomikoan sartu gabe, kirol azpiegiturak erabiltzeko erraztasunekin, esate baterako.

Ez da enpresa arrunta

Eginkizun soziala du Hazlanek.Gizarte bazterketa arriskuan daudenei lan egiteko aukera eskaintzen die

Urte eta erdiko epean, bilakaera itzela izan du Irungo Hazlan enpresak. Bi langilerekin hasi zen, eta hamasei ditu dagoeneko. Baina ez da lortutakoarekin konformatzen. Beste edozein enpresak bezala, lan taldea handitzea eta bezero gehiago eskuratzea ditu helburu. Aitzitik, ez da enpresa konbentzionala. Enpresa soziala da, irabazi asmorik gabekoa. Eta intserzio enpresa ere bai, langileen multzo handi bat, gizarte bazterketa arriskuan dagoen jendeak osatzen baitu. Bi lan ildo ditu Hazlanek: etxeko garbiketena edo zaintzena, eta joste tailerrarena.

Mendibil Elkarte Pedagogikoaren ekimenez sortu zen Hazlan enpresa. 1992 urteaz geroztik dabil lanean Mendibil, formazioa eskaintzen. DBH amaitu ez duten gaztetxoekin, hasieratik, eta epe luzeko langabeekin ere bai, 2006tik aurrera. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean aritzen da bigarren eginkizun horretan. Langabeentzako tailerrak ematen esperientzia hartu ahala, Mendibileko arduradunak konturatu ziren kolektibo jakin batzuetako jendeak zailtasun handiak zituela lan merkatuan murgiltzeko. Ikastaroa bukatu eta denbora gutxira, Mendibilen izena ematera bueltatzen ziren berriro. 2010ean hasi ziren intserzio enpresaren ideia garatzen, eta lau urte beranduago jarri zuten martxan.

Hasieratik hautatu zituzten etxeetako langileen eta jantzigintzaren jarduerak. Maite Ocerin zuzendaritza taldeko kideak azaldu du arrazoia: “Ekonomia ezkutua barrabarra izaten da sektore horietan. Guk halako lanpostuak erregulatu nahi genituen”. Lanbideren babesa jaso zuten, eta Irungo Udalarena ondoren, Irun Ekintzan garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko itunaren bidez. “Atez-ate joan ginen gure proiektuaren berri ematen, eta postontzietan eskuorriak utzi genituen”, adierazi du Ocerinek. Horrela lortu zituzten lehen bezeroak, eta lan taldea handitu ahal izan zuten laster. Denbora tarte labur batean asko handitu badira ere, urrats sendoak eman dituztela baieztatu du Maite Ocerinek.

> “Intserzio arduradunak diagnostikoa egiten du, eta enplegatuaren hobekuntza ibilbidea diseinatzen du”
>
> **Maite Ocerin, zuzendaritza taldeko kidea**

Hobekuntza prozesua behar du langileak

Hazlaneko enplegatu guztiek lan kontratua dute, lanaldi erdikoa, gutxienez. Gizarte bazterketa arriskuan daudenei zuzendutako intserzio programaren bidez kontratatu dituztenak, gutxienez urte betez egoten dira enpresan, eta hiru urtez, gehienez. Langilearen prozesua gainbegiratu eta babestu behar du enpresak, denbora horretan: “Intserzio arduradunak diagnostikoa egiten du, eta enplegatuaren hobekuntza ibilbidea diseinatzen du. Konpetentzia teknikoen eta pertsonalen hobekuntzan laguntza ematen diogu”. Prozesu hori amaitzen duenean, lan merkatu arruntean lehiakor izateko prest egon behar du langileak. Hazlanek berak ere kontrata dezake ondoren, baina lan kontratu arruntarekin.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak dira programa berezi horren baitan kontratatzen dituzten langileak. “Horrek ez du esan nahi langile onak ez direnik, edo formazioa eta esperientzia ez dutenik”, azpimarratu du Maite Ocerinek: “Baina bizitzan izan dituzten gorabeherak direla medio, edo egoera ekonomikoaren eraginez, laguntza horren beharra izan dute. Kasuistika zabala da”. Mendibileko ikastaroetatik pasa ondoren kontratatzen dituzten langileak ere badira. Etxeko garbiketen eta zaintzaren lan ildoan, langileen %50 da Mendibiletik pasatakoa. Horietako askorentzat, lehen esperientzia izaten da lan munduan. “Kontratu bat edukitzea, nomina edo hitzarmena zer diren jakitea, langileen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea... Guzti hori irakaspen handia da lehen aldiz lan egiten duenarentzat”, adierazi du Ocerinek.

> “Bezeroak pozik daude jantzien kalitatearekin”
>
> **Marian Irastorza, diseinatzailea**

Kalitatea eskaini nahi dute

Etxeetako langileen jarduerak hasieratik hartu zuen martxa. Baditu bere zailtasunak, langileak bezeroen beharren arabera antolatzearena, esaterako. “Langile bakoitzak bere egutegia dauka. Egun bakoitzean bizpahiru etxetara joan behar izaten du”, argitu du Ocerinek. Jantzigintza tailerrari, ordea, gehiago kosta zitzaion bezeroen kopurua eta lan karga handitzea. Konponketak eta norbanakoek luzatutako eskaera txikiak besterik ez zituzten egiten, hasieran. Baina aurten bultzada handia jaso du tailerrak. Marian Irastorza diseinatzailea Hazlanen lan egiten hasi da. Esperientzia handia du modaren munduan, eta Irungo tailer txikiaren esku jarri du orain: “Ilusio handia dut. Mundu konplikatua da modarena, pasioa behar da”.

Jantzigintza enpresa handiagoekin lan egiten ari dira orain. Prototipoak eta patroiak egiten dizkiete, momentuz. Tamaina handiko produkzioa, aldiz, beste herrialdeetara bidaltzen dute oraindik. Joera hori aldatzen ari dela baieztatu du, edonola ere, Irastorzak: “Txinatik edo beste herrialdeetatik datozen produktu asko akatsekin iristen dira. Horiek konpondu behar izaten dira, eta azkenean, hemen egin izan balira baino garestiago ateratzen dira”. Bestalde, goi mailako jatetxeetarako jantzien prototipo batzuk diseinatu dituzte, Euskal Herriko sukaldari onenetako batzuekin lan egiten duen komertzial batentzat.

Eskualdeko kirol elkarteekin lanean ere hasi dira, Txingudi Rugby Taldearekin, Bidasoa Judo Elkartearekin edo Real Unionekin, adibidez. “Bezeroak pozik daude jantzien kalitatearekin. Hori da garrantzitsuena guretzat”, aipatu du Irastorzak. Maite Ocerinek ere horixe azpimarratu du. Bezeroek Hazlanen zerbitzuak “kalitateagatik” aukera ditzaten nahi duela. Onartu du, hala ere, Hazlan enpresak beste balio erantsi batzuk ere eskaintzen dituela: “Erantzukizun sozial korporatiboa, adibidez. Krisi momentuetan garrantzi handiagoa du horrek. Ez gara krisi ekonomikoa bakarrik bizitzen ari. Baloreen krisia ere bai”. Hurbiltasuna, eta tokian tokikoaren bermea ere eskain ditzake Hazlanek.

LEHOIAREN POSTALA

Lehoiaren postala egiteko behar dirai kartulinak, gurpilreak, pinturkia eta puntzoia.

Lehenbizi, kartulina laranja erdirik tolestan da eta ilearen irudia marraztu da.

Gero, aurpegiaren irudia marraztu da.

Ondoren, puntzoiarekin aho zuloa egin da.

Hurrengo, albotik pinturkia sartuz aho, mingaina kolorez koloreatu.

Azkenik, aurpegia ilearen erdian itsatsi da.

Postala ere polita geditzen da.

Gorka Martin 2.D

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

Irungo La Salle DBH 1

EGILEAK: Amane Agerralde (1.D) eta Joane Rodrigaez (1.D) Irungo La Salle.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959-III-15). (El Bidasoa, 1959-IV-18)

Andre-gizon baten kanta

Bartarratsian
eta beranduan
etxia nekez jo genuan;
itxera joan ta
su onduan
fanfarroikeriya bagenuan.

Atsuak ogiya
kolkotik,
aguriak ardura
botatik;
jan t´eran mutillak
gogotik
berdin baziok ortatik

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

inkesta

Zer egingo duzu Opilaren Egunean?

Beñat Remesar

Aurten ezin izango dut ospatu. Goizean klaseak izango ditut eta arratsaldean ez dut uste ospatuko dudanik.

Txikia nintzenean bedeinkatzera joaten nintzen, eta gero median opila jaten genuen.

Uxue Goñi eta Ane Kortajarena

UXUE: Uste dut hondartzara joango garela lagunekin. Goizean eskola izango dugu eta, horregatik, arratsaldean joango gara. Txikia nintzenean ez nuen ospatzen San Markos eguna.

ANE: Txikia nintzenean aiton-amonekin joaten nintzen opila bedeikantzera, eta gero mendira nire lehengusuekin bazkaltzera eta opila jatera. Aurten nire lagunekin joango naiz, Guadalupera, ziur aski.

Jon Arruabarrena

Klasea daukat, eta zaila izango da ospatu ahal izatea. Baina ez dakit zerbait egingo dudan. Normalean familiarekin egoten naiz, eta arratsaldean lagunekin opila jaten.

Oroitzapen oso politak dauzkat. Junkal elizan bedeinkatzera joaten nintzen familian. Zorionez oraindik ematen didate opila.

Alexia Fernández

Ez dakit hondartzara edo mendira joango garen. Klasea daukat goizean, baina ez dakit joango naizen edo ez. Goizean nire lagunekin egongo naiz, eta opila bedeinkatzera joaten badira, beraiekin joango naiz.

Txikia nintzenean nire amarekin ete bere lagunekin mendira joaten ginen opila jatera.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

IRUN UDAN 2016

Sartu Igazteren web gunean (www.irun.org/igazte) eta ezagutu udalak 2016ko udarako eskaintzen dituen zenbait zerbitzu: udaleku Irekiak (ordu batzuez bakarrik), udalekuak eta kanpamenduak, kirol ekintzak, ikastaroak, tailerrak, bisitak, hizkuntzak atzerrian ikasteko aukera, auzolandegiak, lankidetza, boluntariotza, elkartasun brigadak, bidaiak, etab.

SAN MARTZIAL 2016.

OINARRIAK: KARTEL LEHIAKETA

Kartela aukeratzeko lehiaketa. Irungo Udalak 2016ko Irungo San Pedro eta San Martzial jaietako kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du.

Saria? 1.000 euroko sari nagusia emango dute, eta 200 euroko akzesit bat.

Epea? 2016ko apirilaren 22 (21:00ak arte).

Non? Zuzenean Amaia KZn.

ERAKUSKETA: " ANIDAR EN LOS BOSQUES "

Pili Aguadoren ilustrazioak ikusteko aukera izango duzu “Anidar los bosques” erakusketan”.

Noiz? Apirilaren 8tik maiatzaren 7ra.
(asteartetik larunbatera).

Ordutegia? 17:00etatik 21:00etara.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ASEXORA ZAITEZ !!!!
Apirilaren 29an egongo gara !!!

DOAKOA eta KONFIDENTZIALA!!! Zatoz IGaztera, Itsaso Carrizo psikologo-sexologoarekin zure zalantza guztiak argitzera ondorengo gaien inguruan:

- Antisorgailuak
- Sexu, maitasun-harremanak
- Haurdunaldia
- Lehen harremanak
- Sexu orientazioa

Eguna: Apirilak 29, ostirala.
Ordua: 17.00-19:00.
Lekua: IGazte (CBA, -1.go solairua).

Emakumeentzako Ahalduntze Eskola 2016

Emakumeentzako ahalduntze eskola

Emakumeen garapen pertsonala, soziala eta kulturala lantzeko ikastaro hauen bitartez, hausnarketa, prestakuntza eta biltzeko eremua sortzen da; helburua da jakintza eta ongizate pertsonala gehiago aberastea, horien bidez adin eta interes deberdinetako emakumeei ahalduntze pertsonaleko eta kolektiboko prozesuan aurrera egiten laguntzearren.

Gogoeta egingo dugu gure sexualitateari buruz, emakume garen aldetik, zer gizarte-aukerak dituzun maitasun-sexu harremanei dagokienez, plazerraren eta arriskuaren arteko harremanari buruz.

Noiz? Apirilak 22 eta 29, maiatzak 6.

Matrikula: 7 euro.

Ordutegia: 10.00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Non? Ospital zaharreko kanpoko Aretoan.

Epea: apirilaren 11tik 20ra.

Izena emateko?
Telefonoz: 010 - 943 50 51 52.

web:
www.irun.org/igualdad

Apirilak 16

Zer? Familientzako ikuskizuna: Egun bat zirkoan.

Non? Amaia KZn.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? 4,10 euro.

Salmenta?:
Interneten bidez: WEB atalaren lotura jarraituz.
-
Zuzenean: Leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Zuzenean: Irungo Turismo bulegoan, Luis Mariano plazan.

Apirilak 17

Zer? Elkartasun Zumbathoia. Aurreratu elkarteak eta C.D.Bidasoak elkarlanarekin antolatua.

Non? Uranzu frontoian.

Ordutegia? 10:30-13:30.

Prezioa? 12 euro.

Salmenta? CD. Bidasoaren bulegoan eta Uranzu frontoiko leihatilan.

ZUMBAthon

Apirilak 17

Zer? Txirrindularitza izango da protagonista "Igande Sasoi" honetan. Irungo Txirrindulari Elkarteak zenbait jarduera antolatuko ditu.

Non? Colon ibilbidean eta Zaballza Plazan.

Ordua? 11:30etatik 13:30etara.

Prezioa? Doako sarrera.



Apirilak 18

Zer? Jendaurreko irakurketa Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta. "Don Quijote de la mancha", eta euskarazko liburu bat.

Non? CBA liburutegian.

Ordua? 19:00tan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Izen emateak: Apirilaren 11tik aurrera.

Apirilak 21

Zer? Kabimagia magic: Magic Chano-ilusionista, helduentzako magia ikuskizuna.

Non? Kabigorrin.

Ordua? 20:00tan.

Prezioa? Doako sarrera.

kabigorri

Apirilak 29

Zer? ACUSTICBAS: TUTTI FRUTI JAZZ PROJECT.

Non? CBA liburutegian.

Ordutegia? 19:30etan.

Prezioa? Doako sarrera.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 93.000 €

Pisua salgai Hendaian
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portun
Azalera 82 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, trastelekua eta bista politekin.
Pisu erreformatua.
Ref: 04422 180.000 €

Pisua salgai Irun Alde zaharran
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea.
Erreformatuta eta pisua erreformatuak.
Ref: 04399 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmeran
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 52 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea
4. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04464 82.000 €

Pisua salgai Irun Arbes
Azalera 67 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, eguzkitsua eta bista politekin.
Ref: 04441 165.000 €

Pisua salgai Hondarribian
Azalera 46 m², 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea.
Pisu erreformatua.
Ref: 04435 140.000 €

Etxea salgai Hendaian
Azalera 110 m², 3 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, jardina, gas berokuntza eta eguzkitsua. Alde oso lasaia.
Ref: 04336 285.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Don Jabugo

Giro atsegina eta kalitatezko produktuak Don Jabugon.
Hurbil zaitez eta dasta itzazu gure urdaiazpikoa, pintxoak eta plater konbinatuak.

Tel: 943 020 624
Zabaltza plaza, 8